

XX GAZTE ASTEAREN KARTEL LEHIAKETA.

Azken urteetan egin ohi izan dugun bezala, "Gazte Astea" antolatu nahian gabilta. Honetarako **zuen partaidetza** ezinbestekoa izango dugu.

Gazte Astea antolatzeko Gabon opor garaia aprobetxatuko dugu ekintza ezberdinak antolatuz. Hau da; **URTARRILAREN 3, 4 eta 5**, egunetan.

Gazte Astearen lehen ekintza proposamen gisa **KARTEL LEHIAKETA** aurkezten dizugu. Gainera, aurtengoan **berrikuntzekin gatoz**. Kartela urtero eskuz egin izan den bezala, aurtengoan **plataforma digitalak erabiltzeko aukera ere izango duzu**. Hemen dituzu bertan parte hartzeko betebeharreko oinarriak.

OINARRIAK:

- + **Partehartzaileak**; 12-17 urte bitarteko gazteek parte har dezakete (DBH1-DBH4 ikasleak)
 - + **Gaia**: "XX. Gazte astea"
 - + **Formatua**: Aurretik aipatu dugun bezala, kartela bi motatakoa izan daiteke. Eskuzko formatuan, diseinua DIN-4 orri baten erdia izango da, luzetaka hartuta. Alegia, 29zm x 10 zm-ko neurria izan beharko du orriak. Marraskia bertikalean egin beharko da; hau da, goitik behera. Lana txuri beltzean, nahiz koloretan egin ahal izango da eta paperean edo pen-drive bidez aurkeztu ahalko da. Formatu digitalak, berriz, aurreko lege berdinak bete beharko ditu eta edozein plataforma erabiltzeko aukera egongo da. Lan hau, pen-drive bidez aurkeztu beharko da.
 - + **Non eta Noiz aurkeztu**: Lana egileak aurkeztu beharko du Gazte Zerbitzu Bulegoan, Aita Madinabeitia z/g, Elkargune eraikinean. **Lanak aurkezteko epea; 2021ko azaroak 26** (Ordutegia; Asteleheneetik ostiralera, 16:30etatik 20:00etara). Azkoitiko Udalak ez du bere gain hartzen diseinuak bidean galdu edo hausturaren ardura.
 - + **Epaimahaia**: Azkoitiko Udaleko Gazteria Teknikaria, eta Gazte Zerbitzu Bulegoko arduraduna.
 - + **Sariak**:
 - Eskuzko formatua: 80€ko eroste txartel bat.
 - Formatu digitala: 80€ko eroste txartel bat.
- *Nahiz eta formatu bakoitzean irabazle bat egongo den, kartel bakarra inprimatu eta erabiliko da eskuorri gisa.
- Eroste txartel hauek herriko dendetan erabiltzeko izango dira.